

# IKASTAROA: Gazteen parte-hartzerako tresnak

**Bilbon,**  
2015eko maiatzaren 25ean eta 26an

**Donostian,**  
2015eko maiatzaren 27an eta 28an

**Tokiak:**

Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea 11, behea  
Donostian, EGKren egoitza. Andia kalea 11, solairu  
nagusia

**Ordutegia:**

09:00etatik 14:00etara

**Hizkuntza:**

euskaraz

**Izena emateko epea:**

apirilaren 27tik, maiatzaren 8ra

**Izen-ematea:**

[www.gaztebehatokia.euskadi.eus](http://www.gaztebehatokia.euskadi.eus)

hizkuntza:  
euskeraz



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

**PERTSONA HELBURU**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

“Gazteen parte-hartzerako tresnak” ikastaroak gazteek parte-hartzeko eta parte ez hartzeko dituzten arrazoiak, moduak eta gakoak argitzen laguntzea du helburu. Horretarako Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ibilbideaz baliatuko da, adibide teoriko-praktikoak ezarriz.

## helburuak

- › Parte-hartzea eta gazteria/gaztea kontzeptuak zer diren elkarrekin definitzea, zer ez diren kontuan izanik.
- › Arlo nagusietan gazteen parte-hartzera hurbiltzea: gai sozio-ekonomikoetan, politikan, hezkuntzan eta astialdian, berdintasunean, bizikidetzan eta komunikazioan.
- › Gazte inplikatuaren zergatiak ezagutzea, parte-hartzearen zentzuak eta motibazioak jakinaraziz. Aldi berean, parte-hartze ezaren zergatiak eta arrazoiak aztertzea.
- › Parte-hartzerako bide berrietan sakontzea: kolektibo izaeratik norbanako izaerara; eragile formaletatik talde ez formaletara; parte-hartze fisikotik parte-hartze birtualera; jarraikortasunetik noizbehinkakotasunera.
- › Gazteen parte-hartzea bultzatu eta honi onurarik handiena ateratzeko jarraibideak luzatzea.
- › Parte-hartze proiektu gazte bat garatzen laguntzea.

## metodologia

Teoriko-praktikoa, hartzaileen jarrera aktiboa bultzatuz. Gaia jorratzeko erreminta ezberdinak erabiliko dira, hala nola gazteek antolatutako eta gazteei zuzendutako kasu praktiko zehatzak, parte-hartzea landu duten ikerketetan lorturiko emaitzak eta hainbat gazteren testigantzak. Horretaz gain, ikastarora datozen norbanakoek bizitako esperientziak elkar banatzeko aukera izango da.

**10 orduko ikastaroa, bosna orduko bi saiotan banatua.**

**Ikasle kopurua: 25 lagun**

## hartzaileak

**Lehentasuna** izango dute **gazteekin lanean edo elkarlanean** (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntario-lanetan...) dihardutenek.

- › Gazteen arloko langileak (Gazte Informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak eta beste erakunde batzuk).
- › Hezitzaileak.
- › Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako orientatzaileak.



IKASTAROA:  
**Gazteen  
parte-hartzerako  
tresnak**



## programa

### 1. Saioa

#### Gazteak eta parte-hartzea identifikatuz

- > Gazteak eta gazteria: nortzuk dira, nortzuk ez eta izan edo ez izateko lehiandaudenak. Definizio bateratua.
- > Parte-hartzea: zer da, zer ez eta lehiandagoena. Definizio bateratua.
- > Parte-hartzearen geografia: arloak eta lekuak. Non gertatzen da gazteen-parte-hartzea.
- > Zergatik parte hartu? Zergatik ez inplikatu? Galderei erantzunak.

### 2. Saioa

#### Parte-hartzerako tresnak landuz

- > Gazteen parte-hartzeko moduak gaur egungo errealitatean. Dinamika praktikoa eta ikerketen datu interesgarrien aurkezpena.
- > Paradigman aldaketa: parte-hartze tradizionala (elkartegintza) eta parte-hartze berria (gizarte-inplikazioa).
- > Gazteen artean parte-hartzea bultzatzeko ideiak. Proiektu bat garatzeko dinamika praktikoa.
- > Ondorioak eta gomendioak.



## irakasleak

#### Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Gazteen gizarte gaitan eta parte-hartzean esperientzia zabala duten gazte profesionalak emango dute ikastaroa.

## antolatzailea

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA > Gazteria eta Kirol Zuzendaritza > Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

944031645 / [gaztebehatokia@euskadi.eus](mailto:gaztebehatokia@euskadi.eus)